

ZER BERRI



Aizarnazabalen
MARTXOA 2026

Esamoldea: "Izena duena bada"



GAIAK

- 1.-Udalekuen izenematea
- 2.-Aizarnazabal Biziberritzen bilera eguna
- 3.-Betion Gizarte Zerbitzuen aurkezpena eta erorketen inguruko tailerra
- 4.-Binakako txapelketa
- 5.-"Gipuzkoako Herriartekoa" finalerdiak
- 6.-Emakumearen Nazioarteko Eguna.,Ekitaldiak
- 7.-Samiel jaien antolakuntza bilera
- 8.-Kz-guneko begiralearen bisita
- 9.-Ipui kontaketa ikastaroa
- 10.-Garizumako hitzaldiak
- 11.-Udal gaiak: igogailua, udal bulegoak eta ordutegia

Beste hilabete bati
Ongi etorria
Martxoaren zortzian
Gure aldarria
Korrika-n alde goaz
Mugituz gerria
Honekin iritsiko
Da udaberria
Kolorez betetzeko
Daukagun herria
Bihurtu dadila" (Adiskide Bertso Eskola)



1. UDALEKUEN IZENEMATEA.

Udalekuen izenemate epea irekiko da. Martxoak 2a eta 9a bitartean egin ahal izango da. Izenemate orriak liburutegian daude eskuragai. Helburua udalekuetan parte hatzeko interesa duten umeen kopurua zehaztea da ondoren gaia aztertu ahal izateko.

2. A. BIZIBERRITZEN BILERA

Aizarnazabal biziberritzen taldearen bilera:

- **Martxoak 4, asteazkena, Gaztetxean arratsaldeko 18:00etan.**

3. BETION GIZARTE ZERBITZUEN AURKEZPENA ETA "ERORKETAK" TAILERRA

Osakidetzak, Eusko Jaurlaritzak eta udalak elkarlanean zehazki gure herriari zuzendurik ondorengo zerbitzuaren aurkezpena eta gaiak landuko dute:

- **Gaia:** Btion Zerbitzu Sozialen Aurkezpena
- **Ikastaroa:** erorketen ikastaroa.
- **Martxoak 6, ostirala, goizeko 10:00etan Laiburuko 1º solairuan.**

4. BINAKAKO TXAPELKETA

Atzeko orrialdean doakizue informazio osoa.

5. "GIPIZKOAKO HERRIARTEKOA" FINALERDIAK

"Gipuzkoako Herriarteko" finalerdiak Martxoak 6, ostirala, Zarautzen 19:00etatik aurrera ospatuko da. Sarrerak bertan izango dira salgai.

6. MARTXOAK 8- EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA.EKITALDIA

Martxoaren 8an emakumeen eguna ospatzen den honetan Aizarnazabalgo Mugimendu Feministak ondorengo ekintzak antolatu ditu:

- **Martxoak 6: "Putaren bakarrizketa eroetxean", 19:00etan Zahar Etxean**
- **Martxoak 8, igandea: elkartaratzea udaletxea aurrean 12:30etan.**

7. SAMIEL JAIEN ANTOLAKUNTZA BILERA

- **Martxoaren 11ean, asteazkena, Laiburuko bilera gelan arratsaldeko 18:00etan.**

8. KZ-GUNEKO BEGIRALEAREN BISITA EGUNA

Martxoko bisita eguna honakoa izano da:

- **Eguna:** martxoak 25
- **Ordua:** 11:15- 13:00
- **Ikastaroak** egin nahi dituztenak informazioa jaso dezaketete:
Telefonoz: 945 062 555
Helbide elektronikora idatziz: tutor.aizarnazabal@kzgunea.net

9. IPUIN KONTAKETA IKASTAROA

Irakurketa suspertzeko lanetan hasteko asmoz ondorengo proposamena luzatzen da liburutegitik parte hartu nahi duen guztiari, heldu, guraso, gazte, gaztetxo.... Urte luzeetan Zarautzko Sanz-Eneako haur liburutegian umeei ipuin eta liburuen kontaketa lanetan dabilen Miriam Mendozak eskeiniko du ipuinen inguruko ikastaro hau.

Ikastaroarn helburua partaideak haur literaturara hurbildu, ipuinen mundura, hauek kontatzeko moduetara eta ondoren praktikan jarri ahal izatea da. Behin parte hartu ondoren taldetxo bat osatzea litzake asmoa eta aldika adin ezberdinetako haur eta gaztetxoei ipuinak kontatu, eta dinamikak antolatzea da, haurrak irakurketara bultzatu eta gozatu ahal dezaten.

Bi orduko bi saioz osatzen da ikastaroa. Saioak astebukaerean izan beharko dute , larunbat goiza/arratsaldea edo igande goiza. Dohainik eta irekika izango dira. Hauek dira proposatzen diren egunak:

☞ **1.Saioa: martxoak 14 edo martxoak 15**

☞ **2. Saioa: martxoak 28 edo martxoak 29**

Lehenengo saioaren helburua ipuinen mundua partaideen eskura jartzea da; Bigarren saioa jasotakoa martxan jartzeko.

Interesa duzutenok izena eman ezazue martxoak 4a bitartean liburutegian.

10. GARIZUMAKO PRESTAKETA EKINTZAK

Aste Santurako Garizuma aldi honetan antolatu diren prestaketa ekintzak honokoak dira:

- **Martxoak 18, arratseko 20:00etan: hitzaldia.**
Gaia:“Jesus jarraituz Garizuman”. Hizlaria: Borja Prieto.
- **Martxoak 25, arratseko 20:00etan: Aitortza.**

11. 24. KORRIKA

Gure herritik pasatzen ez bada ere punturik gertuena martxoaren 28a izango da arratsaldeko 17:00etan Zestoatik.

Udalak bere partaidetza dagokion kilometroa erosiz hartzen du.

12. UDAL ZERBITZUAK

Udaletxeko udal bulegoan erreforma obrak bukatu ondoren Idazkaritza eta Alkatzetza udaletxean daude dagoeneko. Udal bulegoen ordutegiak hauek dira:

- **Herritarrentzat arreta ordutegia:** 8:30etatik 14:30etara, astelehenetik ostiralera.
 - **Alkatearekin hitzodua aurrez hartzeko** ondorengo zenbakira deituz: 634.95.40.86
- Igogailuaen lanak oraindik bukatzeaz daude, ahalik eta lasterren amaitzea espero da.

-

